Baiona, 2022ko abenduaren 6a

LE BASQUE
& LA PLUME

ABBIATZEN

# CONCOURS LITTÉRAIRE DES FÊTES DE BAYONNE

LE CONCOURS LITTÉRAIRE 2023 DES FÊTES DE BAYONNE

Baiona, 2022ko abenduaren 6a

LE BASQUE & LA PLUME

ABBIATZEN

## BAIONAKO BESTETAKO LEHEN LITERATURA LEHIAKETA

Ez da gehiago Baionako Besten fama forgatzerik, baina behar bada idatzi behar da.
Ohar hau eginik, Pierre CASAMITJANA eta Gorka ROBLESek sortu **LE BASQUE & LA PLUME** elkarteak erabaki du besta hauek literatura tradizio bat eskaintzea, urtero **BAIONAKO BESTETAKO LITERATURA LEHIAKETA** antolatuz, frantsesez eta euskaraz (kaskoi hizkuntzaz 2024an) !

**Hauen ideia :** urteroko lehiaketa motako literatura besta handi bat antolatzea, 2023an lehen edizioa plantan ezarriz.

**Baionako Besten aipamena egitea izanen da Literatura lehiaketako gai orokorra.**

Partehartzaileak beharko du Baionako Bestak aipatzen dituen egiazko edo alegiazko kontakizun idatzi. Izan Besta hauen garaian gertatzen delako, hauen giroa, usaina gogorarazten duena, eszena irudikatzen duena edo aitzakia osatzen duena.

Besta hauen aipamen bat egiten duten egiazko edo alegiazko kontakizun bat idaztean datza, Bestak izanen direlarik honen tokia, edo hauen giroa, usaina oroitaraziz, eszena edo aitzakia osatuz.
Olerkitik eleberrira joan daitekeen forma libreko eskuidatziak Bestei lotuak diren lekuak, eszenak, pertsonaiak aipatzen ahalko ditu. Eta beste mota guzietako idazketa irudimenaren emaitza ere.

Zuek lizeotarrek, edo hala izateko adina iraganik ere, parte har ezazue Baionako Bestetako lehen literatura lehiaketan, Baionako Besten inguruko egiazko edo alegiazko momentu bat hunkitzen duen 5 orri inguruko kontakizun bat (10 000 keinu gehienik, espazioak arne) Frantsesez edo Euskaraz idatziz !

Baiona, 2022ko abenduaren 6a

LE BASQUE & LA PLUME

ABBIATZEN

## BAIONAKO BESTETAKO LEHEN LITERATURA LEHIAKETA

Hizkuntza bakoitzeko epaimahaiek deliberatu ondoren, 8 irabazleek saritzat ukanen dute haien eskuidatzia frantsesez edo euskaraz hedatua izanen dela ATLANTICA argitaletxeak atera liburu baten bitartez.

**Gizon/emazte parekidetasuna errespetatuko duen 5 kidez osatua izanen da peña-epaimahai bakoitza, erran nahi baita :**

**Frantses hizkuntzako epaimahaia besteak beste ondokoek osatzen dute :**

**Florence DELAY,** nobela, antzerki eta saiakera idazlea. Frantses Akademiako kide 2000az geroz. Jean Delay, Baionako kirurgilari eta auzapezaren alaba da Françoise.

**Francis MARMANDE,** Baionan sortu idazle, literatura kritika, marrazkilari, Jazz kritika eta musikaria. 2012an argitaratu « Faites les Fêtes » idatzi du besteak beste.
Bai eta **Frédéric BEIGBEDER, Jean-Paul ALEGRE-k ere**.

**Euskarako epaimahaia osatzen dute, besteak beste :**

**Itxaro BORDA,** Baionan sortu euskarazko idazlea. Hainbat olerki saiakera eta eleberri idatzi ditu eta, 2022an, euskarazko Literatura saileko Euskadi sari ospetsua irabazi du, « 100% basque » eleberriari esker.

Bai eta **Xarlex BIDEGAIN, Lucien ETXEZAHARRAHETA, Béa SALABERRI.**

LE CONCOURS LITTÉRAIRE 2023 DES FÊTES DE BAYONNE

Baiona, 2022ko abenduaren 6a

LE BASQUE & LA PLUME

ABBIATZEN

## BAIONAKO BESTETAKO LEHEN LITERATURA LEHIAKETA

**Lehiaketaren urrats desberdinak 2022ko abenduaren 6a eta 2023ko uztailaren 13a artean hedatuko dira :**

**12.06** Lehiaketaren abiatzea

**04.15** Eskuidatziak, www.lebasqueetlaplume.art lehiaketaren gune ofizialera helarazteko azken eguna

**05.15** 20 eskuidatzi sail bakoitzeko aitzin hautatuak izanen dira

**07.13** Emaitzen berri ematea eta liburuen aurkezpena (ATLANTICA Argitaletxea) Baionako Koegui Hotel Villan

> **“Zuen zibilazioak ezagut ditzadan**
> **nahi baldin baduzue,**
> **zuen Bestak kontatu behar dizkidazue”**
>
> Antoine de Saint Exupéry

**Zuen aldi da, idatz ezazue Baionako Besten historia !**

**Prentsa harremana : Stéphanie CHEROND** – 06 73 18 18 67
s.cherond@la-brune.fr

www.lebasquetlaplume.art

LE CONCOURS LITTÉRAIRE 2023 | DES FÊTES DE BAYONNE